



Garraiobideak

Garraiobideak

Programa zure Inaziotar Bidea






Loiolara


Hasteko, [Loiolako Santutegiko](#) web orria kontsulta dezakezu. Bertan aurkituko duzu santutegia kokatzeko mapa zehatza, eta baita ostatuak bilatzeko informazioa ere. Donostiako zein Bilboko aireportuak, bide egokiak izan daitezke bertara iristeko. Eta iristeko aukera onak izan daitezke hiri bakoitzeko tren-geltokiak ere (kontsultatu [RENFEren web orria](#)). Nola Bilbotik hala Donostiatik, [hiriarteko autobusa hartu behar da](#), Azpeitia eta Azkoitia bi herrien artean dagoen Loiolara iristeko.

Bilboko aireportutik Donostiara zuzeneko zerbitzua dago, Donostiako autobus geltokia. plazara. Badago zerbitzu konbinatu bat ere, aireportua Bilboko autobus geltokiarekin (Termibus) eta hau Donostiarekin lotzeko, eta alderantziz. Ordu-tegi eta prezioen informazioak jasotzeko eta zerbitzu konbinatuei buruzkoak jakiteko ere, [Pesa web orria](#) bisitatzea komeni da. Donostiako aireportutik dauden autobusen ordutegien berri jakiteko, begiratu [Interbus web orria](#).

Trenez edo hegazkinez iritsita, autobusa hartu behar da Loiolarako. Bilboko


autobus-geltokitik Azpeitira datorren [Pesa](#) autobusa har daiteke, Loiolan gelditzeko. UK01 [La Guipuzcoana](#) autobus konpainiak joan-etorri erregularra dauka Donostia eta Loiola artean, ordubete inguruan iristen da.






Logroñora


Tren geltokia, Europa Plazan dago. Logroñora trenez irits daiteke, Bilbotik, Zaragozatik, Madrildik edo Bartzelonatik. Kontsultatu [RENFEren web orria](#) elkarren arteko loturak eta ordutegiak ezagutzeko. Logroñoko Agoncillo aireportua, hiritik 15 kilometrora dago. Ez dago autobus zerbitzurik baina taxiak eraman gaitzake atetik atera. Lotura ohikoak ditu Madrilgo aireportuarekin.






Tuterara


Tren geltokia, Geltokiko Cuesta kalean aurkitzen da. Tuterara trenez iritsi gaitzke, Bilbotik, Donostiatik, Zaragozatik, Madrildik edo Bartzelonatik. Kontsultatu [RENFEren web orria](#) elkarren arteko loturak eta ordutegiak ezagutzeko. Hemen ez dugu aireportu aukerarik, baina Madril Barajas (T4) aireportuan badago Tuterara zuzeneko autobus-zerbitzua (ibilbidean ez dugu autobusez aldatu beharrik izango). Kontsultatu [ALSA](#) enpresaren web orria. Era berean Zaragozako aireportura joatea nahiago izanez gero, handik har daiteke Tuterarako autobusa.






Zaragozara


Zaragozako Delicias tren-geltokia Rioja kalean aurkitzen da. Zaragozara trenez irits gaitezke, Bilbotik, Donostiatik, Logroñotik, Madrildik edo Bartzelonatik. Kontsultatu [RENFEren web orria](#) elkarren arteko loturak eta ordutegiak ezagutzeko. Tren-geltokian bertan dago autobusen Amaiera geltokia, beraz, handik autobus-lineak har daitezke, erromesari interesa lekiokkeen beste puntu batzuetara iristeko. Kontsultatu [estación de autobuses web orria](#) elkarren arteko loturak eta ordutegiak ezagutzeko. [Zaragozako aireportua](#) hiritik 10kmra dago. Autobus-zerbitzuak hiri erdian utziko gaitu 30 minutuan.






Lleidara


Lleida Pirineo tren-geltokia Ramon Berenguer IV. plazan dago. Lleidara trenez irits gaitzke Zaragozatik, Madrildik edo Bartzelonatik. Kontsultatu [RENFEren web orria](#) elkarren arteko loturak eta ordutegiak ezagutzeko. Autobus geltokia 10 minutura dago oinez, Saracibar 2 kalean, Segre ibaiaren paraleloan, eta San Ignazio parrokiatik gertu. [Lleida Alguaire aireportua](#) hiritik 15kmra dago. Autobus zerbitzua nahiko eskasa da, beraz hobe taxia hartzea garraiobide modura.






Verdu - Tarregara


Ignazio Bidean herri honek garrantzi berezia badu ere, bertara iristea ez da oso erraza. Garraio publikoan, autokarra ([ALSA](#)) erabil genezake Tarregaraino, eta han autokar-aldaketa ([Autocars Agramunt](#)) egin ondoren Verduraino iritsi. Aukeratik onena [RENFEko tren](#)a hartzea da Tarregaraino eta han Autocars Agramunt konpainiako autokarra edo taxia hartu, Verdura iristeko (973 310 060).






Igualadara


Trenez irits gaitezke Bartzelonatik (Plaça Espanya geltokia) Igualadara. Ordulegiak eta beste informazioak eskuratzeko www.fgc.es web gunea kontsultatu.






Montserrateko Monasteriora

Trenez irits gaitezke Bartzelonatik Montserratera. Lehenbizi Montserrateko Monistrol herrira joan behar da FGC (*Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya*) linean, Bartzelonatik Manresara bidean. Irteerako geltokia Plaça Espanyako da, eta Monistrol Vila helmugako geltokia. Hau [kremailera-tren](#) ospetsuarekin lotzen da, 2003an estreinatua, eta ibilbide polit bat eginez lotzen ditu Monistrol herria eta Montserrateko monasterioa. Ibilbidea 15 minutuan egiten da eta 20 minutu oro dago trena. Ordulegiak eta beste kontsultatzeko www.fgc.es web gunea begiratu.





Manresara

Trenez irits gaitezke Bartzelonatik Manresara. Bartzelonatik Manresara [FGC linean](#) (*Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya*) joaten bagara (Plaça Espanya geltokia), Manresa - Viladordis geltokian jaitsi behar da. Han La Cova de Manresaren helbidez galdetu, oinez 5 minutuko bide besterik ez baitago, Cardoner ibaiaren norabidean. Bartzelonatik [RENFEren tren-lineatik](#) ere irits gaitezke. Tren-geltokitik La Cova de San Ignacio etxea ikus daiteke. Cardoner ibaia zubi zaharretik gurutzatu, eta zubiaren ondoko lehen kaletik gora jarraitu.

[AHOLKUAK](#)

[ALDERDI PRAKTIKOAK](#)

[KREDENTZKIALA](#)

[ZIURTAGIRIAK](#)

[HARRERA - TOKIAK](#)

Inaziotar Bidea

Erromes-bideak, Iraganean erromes, Ignazioaren Espainiako aldiak, Eskerrak ematea...

[ESTALGABE EZAZU](#)

Bizitza, erromesaldia

Gogojardunak eta erromesaldia Ignazio Bidean, Lau Aste, Ignazio Bideko otoitz-gida, Ignazio Bidea arnastuz, Sarrerako otoitza...

[Esperimenta itzazu](#)

Erromesaren Bulegoa

Esperientziak, Jarduerak, Agentziak, Kredentzialak, Bidea Errespetua, Elkarteak, Aholkuak Erromesentzat...

[laguntzen dizugu](#)